

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

947

AGINDUA, 2015eko otsailaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Aholku Batzordea sortzen duen 2009ko urtarrilaren 14ko Agindua aldatzen duena.

2009ko urtarrilaren 14ko Agindua Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Aholku Batzordea sortzen du organo aholku-emaille izateko, 2005eko maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuaren esparruan; dekretu horren bidez Osasun Saileko aholku batzordeen araubidea arautzen da.

Jaioberriak bahetzeko programak funtsezko jardueratzat hartzen dira prebentziozko medikuntzaren barruan; izan ere, medikuntza horren helburua da sortzetiko gaixotasunak garaiz atzematea eta gaixotasun horiek dituztenak albait lehenen tratamenduan jartzea. Esku-hartze sanitario egoki batek eta une aproposan egiten denak gutxitu egiten ditu gaixotasun horiekin erlazionatutako morbiditatea, hilkortasuna eta desgaitasunak.

Agindu horren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, «Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Euskadiko Aholku Batzordea lehendakariak, idazkariak eta 8 kidek osatuko dute. Osasun sailburuak izendatuko ditu guztiak». Batzordekideak izendatzeko, agindu horren 4. artikuluan zehazten den banaketa hartuko da kontuan. Agindu hori 2014ko martxoaren 5eko beste agindu baten bidez aldatu zen lehenengoz. Agindu horrek 10 kideko Kontseilua ezarri zuen, aginduan bertan zehaztutako osaerarekin.

Bada, Euskadin sortzetiko gaixotasunak jaioberriengan bahetzeko programak sortu zenetik gaur egunera bitarte zer nolako bilakaera eta emaitzak izan dituen ikusita, Osasun Sailak aurreikusi du beste patologia batzuk gehitzea bahetzeko, etorkizun hurbilean. Horregatik, ezinbestekoa dela ikusi da Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Euskadiko Aholku Batzordean aditu gehiago sartzeari, batzorde horretako kide kopurua handituta. Kide-kopurua zabalduta, erizaintzari eta otorrinolaringologiari ordezkariak handiagoa eman nahi zaie aholku batzorde horretan, uste dugulako ez daudela behar beste ordezkariak batzordeak gaur egun duen osaeran.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Aholku Batzordea sortzen duen Osasuneko sailburuaren 2009ko urtarrilaren 14ko Aginduaren 3. artikuluko 1. paragrafoa aldatzea; honela geratzen da idatzita:

«1.— Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Euskadiko Aholku Batzordea lehendakariak, idazkariak eta 12 kidek osatuko dute. Osasun sailburuak izendatuko ditu guztiak. Ahaleginak egingo dira osaera hori paritarioa izan dadin.»

2. artikulua.— Euskadin Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Aholku Batzordea sortzen duen Osasuneko sailburuaren 2009ko urtarrilaren 14ko Aginduaren 4. artikulua aldatzea; honela geratzen da idatzita:

«Kideak honako banaketaren arabera izendatuko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Programako koordinatzaileak.

b) Kide bat, Euskal Herriko Pediatri Elkartearen ordezkari.

c) Kide bat, Ginekologiako eta Obstetriziako EAEko Erakundearen ordezkari.

d) 2 kide, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkari.

e) 4 kide, Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ordezkari».

3. artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 13a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.